

DEKALOGOA

1

Euskara da Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) berezko hizkuntza, eta hizkuntza ofiziala da, gaztelaniarekin batera. Beraz, EAEko epaitegi eta auzitegietan erabili ahal izango da herritarrei inolako oztopo edo eragozpenik sortarazi gabe.

2

Justizia Administrazioaren zerbitzu publikoarekiko harremanetan, erabiltzaileek hizkuntza ofizial biak erabiltzeko eskubidea daukate, eta ez ezin izango zaie inolako itzulpenik eskatu.

3

Herritarrek eskubidea izango dute auzitegien aurreko adierazpen guztiak erabilitako hizkuntza ofizialean jaso daitezen, hizkuntza batean ala bestean izanik ere.

4

EAEko Epaitegi eta Auzitegien barruan, herritarrek eskubidea izango dute prozesua euskara hutsean izan dadin eskatzeko, prozeduran zehar eurei dagozkien arloetan.

5

Herritarren eskubidea izango da epaitegi eta auzitegietatik heltzen den dokumentazio orokor guztia hizkuntza ofizial bietan egon dadin.

6

Prozedura edo izapidetze judizialen bat bideratzen denean, lagun zehatz bati dagokion dokumentazioa, berak eskatzen duen hizkuntza ofizialean bidaliko da.

7

Herritarrek eskubidea daukate dokumentazio guztia EAEko edozein hizkuntza ofizialetan aurkezteko epaitegi eta auzitegietan. Euskaraz aurkeztutako dokumentazioa balio osokoa izango da. Agiri batek EAEren hizkuntza-esparrutik kanpo izan behar baditu ondorioak, botere publikoek bideratuko dute itzulpena, arrazoi gabeko atzerapenik gabe.

8

Zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten erakundeek eta Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten administrazioen menpeko lagunek, ezin izango dute epaitegi eta auzitegien aurrean oztopatu euskararen erabilera, ez dutela ezagutzen argudiatuta.

Euskaraz ez dakiten Justizia Administrazioako kidegoak osatzen dituzten lagun guztiei, eskura jarriko zaizkie gaztelaniara itzultzeko behar diren tresnak.

9

Botere publikoek euskara ahoz zein idatziz erabil dadin sustatuko dute EAEko Justizia Administrazioetan.

10

Eusko Jaurlearitzak, Justizia Sailaren bitartez, hizkuntza normalizaziorako Plangintza Orokorra sustatu eta ezarriko du EAEko justizia administrazioan, eta baita barruti judizial bakoitzari begira egindako erabilera-plangintza zehatzak ere.